


Lau haizeetara edo a los cuatro vientos?



MALEN UBIRIA
DONOSTIAKO LAUAIZETA INSTITUTUKO
3. MAILAKO IKASLEEN IZENEAN



MAITE MUTUBERRIA

Irail amaierarako plan ezin hobeia izan daiteke. Hartu *Goierri Valley*-n egin-dako autobusa, eta joan *Bermeo Tuna World Capital*-era. Erosi garagardo pare-a *Izaro Irish Pub*-en, eta gozatu estropadez, moila gainean eserita. Ziur traineruren batean badagoela *BAT Basque Team*-en dabilen arraunlariren bat, eta agian *Go Fit Hondarribia*-k irabaziko du estropada. Kirola atsegin ez bada, gertu dago *Urdaibai Bird Center*. Iluntzean, Gipuzkoara joan eta *Basque Culinary Center*-en afaldu ostean osteratxo egin daiteke Donostiara, *San Sebastian Región*-en zer aurkituko.

Jon Ander de la Hozek *Berria*-n 2018ko maiatzean idatzi zuen *Euskaren hazia, lore erdaretan* erreportajetik hartutako hitzak dituzue goikoak, eta guri ezin egokiagoak iruditu zaizkigu honako hausnarketa hau proposatzeko.

Gaur egun, 2019. urtean, euskaldunok gure kultura eta ohiturak "lau haizeetara" zabaltzeko daukagun grina honen barruan, ahaztu egin al zaigu hizkuntza ere zabaltzea? Ez al da euskara euskaldun egiten gaituena? Uneoro gauza guztiak

internazionaltzen ditugu, mundu guztiak gozatu dezan gure kulturaz, baina ahazten ari zaigu euskaldunok garela gozatu behar dugun lehenengoak, gure herria baita.

Goiko adibideotaz gain, beste milaka jarriko nituzke BEC (*Bilbao Exhibition Centre*), *Itzulia Basque Country*, *DonostiCup*... Baina gaurkoan Donostiako Zinemaldian zentratuko gara. Ez dakit gogoan duzuen, baina Donostia Zinemaldiari logoa aldatu zioten iaz, aurrerantzean SSIFF izena du, hau da, *San Sebastian International Film Festival* izenarekin indar eta oihartzun handiagoa hartuko duela egin omen dute aldaketa hau.

Iritzia ematen hasi baino lehen, zenbakiekin hasiko gara: Donostiako 60. Zinemaldian 157.256 ikusle izan ziren; 62. edizioan berriz, 158.608; eta 63. edizioak, guztira, 174.901 ikusle izan zituen. Ez al zaizue iruditzen zinemaldia bera ari dela zabaltzen berez? Beharrezkoa al da euskara alde batera uztea? Guk, Lauaizeta Institutuko ikasleok, pentsatzen dugu euskal kultura euskara erabiliz zabaltu behar dela; batez ere, gure iritzian, euskara euskal kulturaren parte delako, eta

benetan "lau haizeetara" zabaltu behar baldin badugu, *pack* guztia zabaltzea delako egokiena gure ustetan.

Berdina izango litzateke Kataluniako Castellars-ei izena ingelesez jarriko bagenie? Edota urrutiago joanda, *Halloween* iparramerikar festari *Ilunabarra* deituko bagenio, berdina izango litzateke? Gauza da besteen kulturak –askotan, ez betijatorrizko hizkuntzan ezagutu eta barneratu ditugula arazorik gabe; gure kultura zabaltzerakoan ordea, gure hizkuntza zabalkuntzarako arazo bat dela pentsatu dugu, eta horra hor gure akatsa.

Euskaldunak gara, euskal hiztunak, kultura zoragarria dugunak, eta munduari gure kulturaz gozatzeko utzi nahi diogunak; baina, ez dezagun ahaztu euskara dela euskaldun egiten gaituena, eta euskara ere harro egoteko eta "lau haizeetara" zabaltzeko hizkuntza eder eta sakona dela.

Hau da gure hausnarketa, ez dugu pentsatzen iritzi xume honekin Zinemaldiari logoa aldatuko diogunik, baina zuek, irakurleok, hausnartzera bultzatu nahi zaituztegu, hori baitaukagu helburu. Beraz, lortu dugu gure helburua? ●